7

# Ibilgailuak

# Vehículos

Abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak –1999ko urriaren 26an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta– arautu zuen Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasuna. Dekretuak aipatzen duen eskuliburuak hiru kapitulu jasotzen ditu:

1. kapitulua. Arau orokorrak
2. kapitulua. Beste marka batzuekin batera
3. kapitulua. Berariazko beste marka batzuk

Kapitulu hau, berriz, dekretu horren ondorengo garapena da; hain zuzen ere, Lehendakaritzako idazkariaren ebazpen bidez onartua, hala ezartzen baitu delako dekretuko azken xedapenetako lehenengoak.

La Identidad Corporativa del Gobierno Vasco está regulada por el Decreto 318/1999, de 31 de Agosto, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de 26 de Octubre de 1999, y que comprende:

Capítulo 1. Normas Universales
Capítulo 2. Convivencia con Otras Marcas
Capítulo 3. Otras Marcas Específicas

El Presente capítulo es un desarrollo normativo posterior adoptado por Resolución del Secretario de la Presidencia, en virtud de la Disposición Final Primera del citado Decreto.

## Aurkibidea

## Índice

### 7. IBILGAILUAK

### 7. VEHÍCULOS


| | | |
|---|---|---|
| **7.1 Sarrera** | 7-3 / 99 | **7.1 Introducción** |
| **7.2 Arau orokorrak** | 7-3 / 99 | **7.2 Normas generales** |
| **7.3 Zerbitzuko ibilgailuak** | 7-4 / 99 | **7.3 Vehículos de servicio** |
| **7.4 Larrialdietako ibilgailuak** | 7-8 / 99 | **7.4 Vehículos de atención de emergencias** |
| 7.4.1 Larrialdiak | 7-8 / 99 | 7.4.1 Atención de emergencias |
| **7.5 Ertzaintzako ibilgailuak** | 7-10 / 99 | **7.5 Vehículos de Ertzaintza** |
| **7.6 Beste batzuk** | 7-18 / 99 | **7.6 Otros** |

## 7.1 Sarrera

Eusko Jaurlaritzak, dauzkan zerbitzuak eskaini ahal izateko, hainbat ibilgailu-mota du, zeinek bere arloan jarduteko. Hona ibilgailuok:

- Zerbitzuko ibilgailuak
- Larrialdietako ibilgailuak
- Ertzaintzako ibilgailuak
- Beste batzuk

Ibilgailu horiek guztiek behar bezalako ikur adierazgarria eramanez, administratua jabetu egingo da administrazioak eskainitako zerbitzuaren garrantziaz eta balioaz. Eusko Jaurlaritzako ibilgailuak kale edo errepideetan ibiltzen direnean erakundearen irudi-ordezkariak dira, eta horregatik, itxura garbi eta txukuna behar dute izan.

Ondoko orrialdeetan erakusten dira ibilgailurik adierazgarrienak.

Herri-baltzu eta erakunde autonomiadunetako ibilgailuei buruzko arauak "Beste marka batzuekin batera" deritzon 2. kapituluan azaltzen dira zehatz-mehatz.

## 7.2 Arau orokorrak

Erabili beharreko bertsioa "albokoa" marka da, eta erabiliko diren tekniken arabera koloreetan edo kolore bakarrean txertatuko da. Ahal dela, ez jarri hierarkia-mailarik.

Egoki iritziz gero, barne-organoak ere sartuko dira; baina, gehienez ere, bi administrazio-maila agertuko dira. Horrelakoetan, maila horietako bat, derrigorrez, saila izango da –ikusi 1-24/99tik 1-26/99rainoko orrialdeak–.

Halaber, logotipoaren armarri bakartua erabili ahal izango da.

## 7.1 Introducción

El Gobierno Vasco para prestar sus diferentes servicios tiene un parque móvil con el que cubrir varios campos de actuación:

- Vehículos de servicio
- Vehículos de atención de emergencias
- Vehículos de Ertzaintza
- Otros

Los vehículos rotulados correctamente conseguirán transmitir al administrado el rigor y eficacia del servicio prestado por la Administración, en el quehacer de sus funciones. De esta forma un vehículo del Gobierno Vasco rodando por las calles o carreteras, es un representante de la Entidad, que deberá presentar siempre un aspecto limpio y cuidado.

En las páginas siguientes se muestran los más representativos.

Las normas relativas a los vehículos de las Sociedades Públicas y Organismos Autónomos, se encuentran detalladas en el Capítulo 2 "Convivencia con otras Marcas".

## 7.2 Normas generales

La versión a utilizar es la Marca "Lateral", en color o monocolor en función de las técnicas que se empleen y preferentemente sin niveles jerárquicos.

No obstante, cuando se estime oportuno se podrán incorporar las estructuras orgánicas con un máximo de dos niveles jerárquicos, siendo en estos casos uno de ellos obligatoriamente el Departamento.
–consultar páginas: 1-24 / 99 a 1-26 / 99–.

Complementariamente, también se puede usar el Escudo aislado del Logotipo.

"Albokoa" marka, koloreetakoa
Marca "Lateral" color

Armarri bakartua
Escudo aislado

# 7.3 Zerbitzuko ibilgailuak

Mandatariek, sailetako kideek eta abarrek erabiltzen dituzte ibilgailu hauek. Ibilgailu-sail honetan, turismoak, furgonetak –itxiak nahiz leihodunak– sartzen dira.

Ibilgailu guztietarako oinarrizko kolorea zuria izango da, beti ere, ibilgailugile bakoitzaren kolore-sortan daudekeen aldakin arinekin.

Erabili beharreko marka "albokoa" izango da, koloreetan zein kolore bakarrean.

Errotulazioa neurrikoa izango da eta, gehienbat, aurreko ateetan jarriko. Bestelako apaingarririk ez da ipiniko. Matrikularen eskuinaldean armarri bakartu bat ere kokatu ahal izango da.

# 7.3 Vehículos de servicio

Estos vehículos están al servicio de ordenanzas, Departamentos, etc, e incluyen turismos, furgonetas y furgones, cerrados o con ventanas.

El color base standard para todos será el blanco, con las ligeras variantes que pueda haber en el color de la gama de cada fabricante.

La Marca a utilizar será la "Lateral", en color o monocolor.

La rotulación se hará preferentemente en las puertas delanteras y de tamaño discreto. No se acompañará ningún otro tipo de decoración. Se podrá también colocar un escudo aislado al lado derecho de la matricula.

**Zerbitzuko ibilgailuak**
Turismoa

**Vehículos de servicio**
Turismo








**Zerbitzuko ibilgailuak**
Furgoneta

**Vehículos de servicio**
Furgoneta








**Zerbitzuko ibilgailuak**
Furgoia

**Vehículos de servicio**
Furgón









# 7.4 Larrialdietako ibilgailuak

## 7.4.1 Larrialdiak

Ibilgailu hauek ere zuriak izango dira, zuri estandarrekoak.

Hauexek dira osagai bereizleak:

- Larrialdietako erakundearen ikurra, Eusko Jaurlaritzaren armarria bere baitan duena.

  Ikur honen inguruan alde ukiezina dago, orrialde honetako irudian azaltzen den erara.

- Aurrealdeko motore-estalkia: erdian, Larrialdietako erakundearen ikurra eta dagokion alde ukiezina izango ditu.
- Hagunak eta hagun-babesgarriak, margotu gabe.

Horietaz gain, informazio-xehetasun egokiak txertatu ahal izango dira, adibidez, SOS Deiak-en logotipoa.

# 7.4 Vehículos de Atención de Emergencias

## 7.4.1 Atención de Emergencias

Estos vehiculos también serán de color de base standard blanco.

Como elementos diferenciadores contarnos con:

- Un emblema propio que incorpora el Escudo del Gobierno Vasco.

  Este emblema está rodeado de la zona de Protección recogida en la figura que se muestra en esta página.

- Capot delantero: se incorporá en su centro el Emblema y su zona de Protección
- Llantas y tapacubos sin pintar.

Además podrán incorporar otros detalles informativos apropiados, por ejemplo el logotipo de SOS Deiak.




Alde ukiezinak, hitzak dioen bezala, ukitu ezin den aldea mugatzen du, hain zuzen ere markaren inguruan jartzen dena. Horren helburua da, bada, marka beste edozein osagai grafikotatik edo ikusizkotatik ondo bereiztea eta ahalik eta ondoen ikustea.

Alde ukiezina, honelakoetan bakarrik aldatu edo ezabatu ahal izango da: marka euskarri baten barruko osagai bakarra denean edo irudi gisa erabiltzen denean.

La Zona de Protección delimita el espacio alrededor de la Marca que deberá mantenerse libre de cualquier otro elemento gráfico o visual a fin de garantizar una óptima percepción de la misma.

Sólo si en alguna ocasión la Marca se aplica como un elemento único dentro de un soporte, o se utiliza como elemento ilustrativo, podrá variarse o suprimirse esta Zona de Protección.

**Herri Babeseko ekintza-ibilgailuak**
Turismoa

**Vehículos de intervención de Protección Civil**
Turismo









**Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzako ibilgailuetan, aurreko ateetan, motore-estalkian eta atzealdean kokatuko da marka, beti ere modelo bakoitzak libre duen lekuan.**

En la flota de vehículos de la Dirección de Atención de Emergencias la Marca se colocará en las puertas delanteras, capot y en la parte trasera del vehículo en el espacio que haya disponible según el modelo.

**Atzealdeko kokagunea aukerakoa da, ibilgailu bakoitzaren ezaugarrien arabera.**
Trasera opcional según las posibilidades de cada vehículo

# 7.5 Ertzaintzako ibilgailuak

Ondoko orrialdeetan, kidego honek erabiltzen dituen zenbait ibilgailu ikus daitezke.

Ibilgailu guztiek zuriak beharko dute izan, salbu eta bakoitzaren izaerak edo egikerak beste kolore batekoak izatea eskatzen badu.

Hauexek dira osagai bereizleak:

- Kidegoaren ikurra, Eusko Jaurlaritzaren armarria bere baitan duena.

  Ikur honen inguruan alde ukiezina dago, orrialde honetako irudian azaltzen den erara.

- Kolorezko zerrenda bat, ibilgailuaren mutur batetik bestera zeharkatzen duena, salbu eta gainazalek eta eiteek uzten ez duten kasuetan. Zerrendaren kolorea urdina (Pantone 280) izango da.

  Zerrenda eten egiten da ikurraren alde ukiezinera iristen denean, eta, tarte horrexetan, alde zuria agertzen da. Ikurreko erdizirkulu urdineko alde etzankakoa eta zerrenda bera lerrokaturik egongo dira.

  Zerrenda osatzen duen "V" erako marrazkia ikurraren atzean kokatuko da, horretarako, ibilgailuaren aurrealdea abiapuntutzat harturik. Ibilgailu luzeak direnean (furgonetak, kamioiak eta abar), marrazki hori ibilgailuaren ezaugarriei egokituko zaie, eta autoaren amaieratik ikurrerainoko tartearen erdian kokatuko da.

- Aurrealdeko motore-estalkia: motorearen estalkiko gainazal osoak zerrendaren kolore urdin bera izango du, erdian, Ertzaintzaren ikurra eta dagokion alde ukiezina dituela.

- Etzankako zerrenda gorria, Pantone 187koa, ibilgailuaren oinarrian.

- Hagunak eta hagun-babesgarriak, margotu gabe.

# 7.5 Vehículos Ertzaintza

En las siguientes páginas mostramos algunos de los vehículos utilizados por este Cuerpo.

Todos los vehículos serán de fondo blanco excepto en aquellos que por su naturaleza o construcción deban de ser de otro color.

Como elementos diferenciadores contamos con:

- Un emblema propio que incorpora el Escudo del Gobierno Vasco.

  Este emblema está rodeado de una zona blanca de protección recogida en la figura que se muestra en esta página.

- Un diseño lineal que recorre el vehículo a lo largo del mismo, excepto en los casos que las superficies y formas no lo permitan. Esta será del color azul Pantone 280.

  Esta línea se interrumpe al llegar a la zona de protección del Emblema, formando una zona blanca. Esta línea y la zona horizontal del semicírculo azul del Emblema, estarán alineados.

  El dibujo en "V" que forma la citada línea siempre se colocará por detrás del Emblema tomando como referencia la parte delantera del vehículo. En los casos de vehículos largos (furgonetas, camiones, etc) se colocará en el centro del espacio entre el emblema y el final del vehículo, ajustándose a las características del mismo.

- Capot delantero: Toda la superficie de la tapa del motor irá en el mismo color azul que el diseño lineal, incorporando en su centro nuevamente el Emblema y su zona de protección.

- Franja horizontal roja Pantone 187 en la base del vehículo.

- Llantas y tapacubos sin pintar.




Ibilgailu baten kolorezko zerrendaren neurriak.
Ibilgailua txikiagoa edo handiagoa bada, dagokion eskalan ezarriko zaio zerrenda.
Edozein aldaketa egitekotan, dagokionari galdetu beharko zaio.

Cotas para la banda lateral aplicada a un coche.
En otros vehículos, mayores o menores, esta banda se aplicará su escala correspondiente.
Cualquier alteración será consultada.

Errepideko motorra

Moto Patrulla





Errepideko autoa

Coche Patrulla









**Atzealdeko kokagunea aukerakoa da, ibilgailu bakoitzaren ezaugarrien arabera.**
Trasera opcional según las posibilidades de cada vehículo

Noranahiko autoa

Coche Todo-Terreno











**Atzealdeko kokagunea aukerakoa da, ibilgailu bakoitzaren ezaugarrien arabera.**
Trasera opcional según las posibilidades de cada vehículo

Furgoia

Furgón






Atzealdean nahikoa lekurik badago, alboetako zerrenda urdinak jarraitzeaz gain, behar den neurriko ikurra jarriko da.




Cuando en la parte posterior se disponga de espacio suficiente, además de continuar con la banda, se colocará un emblema del tamaño apropiado.

Kamioia

Camión









Itsasontziak

Embarcaciones






Helikopteroa

Helicóptero








# 7.6 Beste batzuk

# 7.6 Otros

Itsasontziak

Embarcaciones






Bulego ibiltaria

Oficina móvil

